

Ilargia negar - fantaz

Ilargi! Oi, gau-ameslarien poz! Euskaldun zarren **amandre**, misterioz betea! Nun dira orain zure bizidun eta ezkutua? Ur-ur dabilkizuz rusoak, eta ipar-amerikarrak bi aldiz urratu dautzue garondoa. Kontu aunditan lenengoz, igurtzi gozoz gero. Azken-osteran ez dautzue bape lotsarik erakutsi. Ta zuk ixillik Egipto'ko gizon-leoi -sphinx-antzera edo. Illa zaitugu, noiztik ez dakigula.

Aurten urtea asteen, iru lurtar ausart, odol-otzeko urreratu yatzuz, Shepard, Mitchell ta Roosa. Bildur bage, nasai ibilli dira zure bizkar gain. «Apol XIV» deritxon piztiaren sabelean eldu yatzuz orra, abiada ikaragarrian; eguna egin dabez orra orduko, igelak uretan lez goiak zear egaz. Zu ikusiz, Shepard'ek, ez zaitu antza lirain aurkitu, ta bota dautzu: «Egiaz hasati!» Orrela ete zara?

Stuart Roosa, beste biak zureganatzen diran bitartean, bakarrik geratu da, zure inguruan ega-biraka. Ordu luzetan, ixillik, bere bizitzako bakartaderik latzenean, or

ibilli bearko dau zuri begi-klixka, ogetamairu ordu ta erdian. Egiteko gatxa dau bere bizkar: lagun biak, une onetan beragandik alden. du diranak, zuk muker artu ta uxa ba'dagizuz, berak sorosi bearko ditu. Bizitza osoz egazkiñetan ibilia baita, ganorazko ta trebetasunez betea. Goikoak lagun, ez dautso ezek uts egingo. Ez izan dudarik.

Or dituzu beste biak zeure al-tzoan. Tramankulu biurri bat —«Antares» deritxena— eroan dabe zure gain errezagotzuz-azteko. Olan egin dabe oraintxe bertan, Fra Mauro isoneko leza-ao ondoan. «Jatsiaz goaz» dau Alan Shepard'ek, kilopetro gaitxitik zu ikusterakoan; «Egiptoko gagoz», ebagi dau Mitchell'ek agindu-panelean argi berdea berrizala bere lagunari adierazoz. Shepard'ek gero: «Egun zozaz» dau Fra Mauro biran». Ta or «Antares»-en ankatzarrek zure al-tzoan. Lurtarrok jantzi diran zuren soñekoak, eta atea edegi ta kanpoko zurubitik jatsi yatzuz polipto polito. Zuk arnas berorik ez, erakarpenik ez, ta egan lez dabilte. Baiña aurretiaz,

ez jausteko, saiok egiñak dira emen lurrean.

Ainbat gauza atera dautzuez gero egazkiñaren zilborretik. Eta aurrenik telebixta tresna ipiñi dautzue urteetako negarrez metatu dozun inguruko auts -zelaian. Ortan ez dabe asmo onik, zure narru zurizkaren barri lurtarrai emon nai dautsoe ta. Bai, zure azal, kolore, auts, konkor, leza, zelai, arri-mukur ta abarren barri, zazta-zazta, ezetariko lotsa ta begirune barik bialtzen dabe lurrera. Zure milloirte urte askotako ezkutua jakin gurarik dabilte, arraio pola!

Ikus burdi txiki bat be, gorpil biko, ontzi, arazu ta lanbasez betea; dizditsua, alumini egiña. Zertarako ete? Batez be, izarlari ausart bion indarra iraun-azteko egiña; eta, ara ta ona dabilteaz, gauzak eroateko. Zer gauza? Argizki-ganbarak, zuri lepazurra ausi ta bertatik agiriak, lurrera ekartekoak, aterateko bear dituen tutuak, atxurrak, palak, arkaitz aundiak zatitzeko bear dabezan mailluak, eskuarak, ziskuak, txiriola, ikurriña ta abar. Kolore bilduma bat be burdian daroe, zuk dozunakaz zeintzuk datozen bat ikusidagien. Orrezaz gainera ogetamar metro kordel, izarlari biak alkarri

laguntzeko; leza sakonen baten jausiko ba'litzaz, bada, ezingo leukie andik urten: jantzi zakarrak bai daroez aldean.

Barikua da. 1971'gneko zezeillaren bosta. Alan Shepard ta Edgar Mitchell or dozuz, zu arakatu nairik. Tresna bakotxa bere lekuan jarri ondoren, jakitunentzat gai billa asi dira. Arduraz doaz, saltoka kangur antzean, zure auts gainean; topoz dagie noizik bein arri biribilletan. Mailu aundiz ondoren bekokian zartatzen zaitue: zuk ez dagizu txiliorik, ez negarrik. Eta guk negartia zarezala esan oi dogu! Lau ordu ta erdi daroez olan, «azteraldurrian» deritxosen tokian. Zuk somatzen duzu: ezta? Zelan ez! Pozik zure burdi, lurtar orrekin ikusidagien, zure milagarri. Koskola murriztu, zure auts ezelez auts ezelez, zure ziskuak; barrurrian zure burdi jakin nai leukie. Ta zure burdiaren olako lerkai jakin nai dautzue, barrabanok, eta estanda eragin zure barne mintzai! Or zer dozun jakin nai, noski.

Zisku batzuk bete ditue zuri lapurtutako arri-koskorrez. Gero, trankil be trankil, or jarri dautzuen tramankulu barregarri ortarra igon, apaldu ta lo egin dabe naro-naro, biar zapatuan be beste

orrenbeste egiteko asmuz. Lo gozoa izan dabenik ezin ukatu; goizgoizetik jagi dira beintzat, eta joan yatzuz barrero be, atzo lez nunbait, zure ezkutu geiagoren billa. Ase eziña bai dozu lurterra. Guztiz 33 ordu ta erdi egingo dabez zure alboan, edo gainean. Lendik be or ibilliak dituzu lurterrok, baiña oraingoan beste etziran zurekin egon. Arnas artzea neketsu yakelata, ariñago urrindu ziran zugandik.

Azkenengo biok —Shepard eta Mitchell— ez dabe bildurrik. Maitago zaitue, agiri danez; ortxe, bide laburrean, ikuskatu dautzue ao-zulo ikaragarri bat, naikoa goi, ta orixe aztertu nai dautzue, ikusi beiñik bein zer daukazu zaldar sakon orretan. «Kono» deritxe lurterrok zaldar orri; 120 metro ditu goirantza bere gaillurrak, baiña ertz latzak bertara igoteko. Lerre-nak egin nairik dabiltz izarlariok; izerditan eta biotz-tintin sendotan urreratu yatzuz; baiña porrot egiñik geratu dira, ez argazkirik atera, ez arri-konkorrik zure sabelera bota barik. Eta orixe zan, ain zuzen be, euron asmorik beiñena, zure gilbor zulo ori aztertu: au naitaezkoa yaken zure jaiotzaren inguruko misterioaz jabetzeko. Burditxo euren erekin eroan, eskuetan artu ta aidean be bai, aldatz gora; itzultzeko

arriskuan be egon dira, ezin eutsirik.

Ezta izan au jolasa. Lurretik esan dautsoe igoteari itxi ta «Antares»-era biurtzeko. Gora eltzeko zenbat palta yaken ez dakien arren, lautik iru igonda eukien, Eurenentinko dagozala, nekatuta, «ez dot uste ara goraiño eltzeko astirik izango dogunik» diño Shepard'ek, malkar gora burdia jaso eziñik. «Ezin geinke itxi igon barik; gora eldu ezik, dana litzakigu alperrekoa», erantzuten dautso Mitchell'ek. Alan eta guzti be, ez egoan igotetik. Beraz, agur argazkiak eta agur zure sabelera arri-mokorra botatea! Ez, ez eben entzun al izan zure sabel eragiñaren intziria...

Ez lortu ta or deroz etxeruntz, burditxo narra, eta arri artean zear. Buru-mokorra biotzez nai izana jadetsi ez dakienaren kezka eta sentipenez. Arri-mokorra urreratu yatzuz ezkutu billa, ez ba, dana ezin laketu. 33 ordu ta erdi egin dabez bigarren egiñaldi ontan. Bitartean —zure botakizun!— lurrrera bialdu ta bialdu ibilli da or zure okotz gainean rente jarrita euki daben tresna biribil ori: urrutikuskiña deritxoe, ta olan da izan be. Lurtar bion pausuak eta zure itsusiaren gorria bialdu daskuez lurterroi.

Eta gu tresna dizditsu batzuen aurrean sor ta lor egon gara ordu luzeetan ikusi ta ikusi: barikuan eta zapatuan Shepard'ek eta Mitchell'ek or erabili daben joku lotzagarrri ori 45 milloi lurterrek, gitzon, emakume, ume ta zar, ikusi izan dogu. Ez amerikarrak bakarrik, mundu guztia egon da zuri begira. Egunari ta izparringiak, ostera, orrialde osoak emon daskuez, dakiena ta ez dakiena lau aietara zabalduaz. Irratiak be zarators ikaragarrian ekin dautsoe.

Stuart Roosa, bitartean, itxaron ta itxaron. Edo obetos or dabilkizu inguruan birundaka, zugandik aurreratu amabi kilometro garago. «Kitty Haük»-en gainean dabil eroso aurreratu, naiz-ta bakar-bakarrik. Eragalduko, ezta bere izarlari laguntziak be, ez dira galduko. Nairi urrindu diran arren, baidator 120 metro bidetik. Arunzkoan egiñaldi bigarrena dabez zuzenbide. Ez egiñaldia kendu, andik ez bai datur iñor. Arri-mokor galantak idoyo dabez: batzuk zuriak oso, urdinak beste batzuk. Zu jaio ziñanean —asarre bear daba?— ostarri bat tek jo ei zinduzan, zuri txingar antzera arri-zati, ots, aragi-pusketa orreik erauzi-azorik. Baita ortxe berton ondartz antzeko zelai-unea be ba ei daukazu, kilometro asko-

koa. Lau milla seireun milloi urtekoa noski. Zu bai zarra! Lur onek, alan be, urte geiago ei daukoz.

«Antares»-en ondora dira. Berrogetamar bat kilo arri-koskor dakarrez, zuri ostuta, egun biko lanaren frutua, Euren tresna kankailuan sartu nai dabez, eta ortan diardue, esne bitsetan. Ta gero... agur zuri! Euren tresnak eta zisku beteak sartu ondoren, itxi dautsoe «Antares»-i atea ta «Mutillak!» diño Shepard'ek, «Gorantz!» erantzuten dautsola Mitchell'ek. Eta egian, baidat gorantz. «Laster ikusiko ditugu», diñotse euren laguntziak. Ta zuzana biurturik, «Kitty Haük»-en aurreratu, «Agur!» diño Shepard'ek, zuzen bialduz gomu tagarriak, zuzen bialduz iturriña ta zuzen bialduz botak. Zuzen bialduz maitago zaitue, agur zurekin. Zuzen bialduz zurekin, zuzen bialduz zurekin, zuzen bialduz zurekin, zuzen bialduz zurekin. Baiña «Kitty Haük», bigarren aldiz, «ikusi zurekin» esan dautzu; beraz, ez izan kestarrik.

Egazkin biak —«Antares» ta «Kitty Haük»— alkartu dira goian, ezeren arrisku ta oker barik. Eta une onetatik asten dira iru izarleok irurogei ta zazpi orduko txangoan, usgunean zear. Martitzenean, gabeko amarrak inguruan sartu dira lurrraren eguratsean, sua ta garra da-

rioelarik. Amalau minutu geroago, itxasoan jausi dira, jausgailluak zabaldua, Samoa ugartearen egoaldera. Or dabilta uretan igeri euren etxeño ponpox barruan. Egazkin batzuk etorri ta gerritik oratuaz atera dabez olatu artetik. Zain daukie luze eginda galtzairuzko ontzi andi eder bat, eta ara daroetz. Ango musika, txalo, besarkadak! Eta zenbat zorion-agur bazterretatik!

negarrez, negar - tanta lodiak ixuriaz. Len negarrez, orain negarrez. Bakar zagozalako, bear bada? Itsusi zarealako? Alan be, etorteko diran urteetan or izango dozuz lurtar mordoak, zure egoera orregaz lilluratuak. Oraintxetik diituzu erreskada aundian orra joan gurarik izena emonak. Ilargi!, ilargi!, zeure ixil ezkututsuan, gure lurra, gure itxaso, gure biotzak zeugana eroan azorik.

Eta zu, ilargi!, or geratu zara

Igotz

